



# B E E A U L D S K A K A T A R O R T R A E A

TALDE ERAGILEA

"Zaila izan arren, ez da ezinezkoa izango". Ondorio honetara iritsi ahal izan ginen sei lagunok. Gure herriko sei euskaltzale 1991ko urrian hasi ginen elkartzeko euskararen erabilera suspertzeko bideren bat bilatu nahian. Eta asmo horretatik abiatuta ekin genion lanari.

Ordurako Euskal Herriko herri ugarian euskara taldeak edo elkarteak sortuak ziren, edo sortzekotan zeuden: "Arrasate Euskaldun Dezagun (AED)", Bergarako "Jardun", Oñatiko "Laixan", Lasarteko "Ttakun", Donostiako "Bagera" Durangoko "Berbaro" eta abar luze bat. Horrek Erreterian horrelako esperientzia aurrera eramatera animatu gintuen; beste herrialde batzutan aurrera atera bada, zergatik ez saiatu euskararen erabilera % 7koa duen Erreteria honetan? Egia esan, gure herrian hone-lako esperientziak saiatu dira une desberdinetan, eta ez omen dira gorpuztu. Okasio honetan ere, euskaldungoa elkartzea da ideia nagusia, hizkuntza bere egoeratik ateratzen hasteko giltzarria.

Dena den, gurea elkartzeko hain herri zaila dela iruditu bada ere eta aurreko saio batzuk porrot egin arren, hasierako asmoari heldu behar geniola erabaki genuen aho batez. Segituan, Arrasate, Tolosaldea, Donostia eta Lasarte-Oriako esperientzia oparo eta berritzaileetaz jabetzen hasi ginen: irakurri, aztertu eta gogoeta egin, batetik, eta aipatu herrietan bititako prozesuen zenbait protagonistarekin harremanetan jarri. Denbora aurrera joan ahala, gero eta konbentzimendu handiagoz jotzen genuen.

Hurrengo pausoa izan zen kanpoko esperientzietatik ikusitakoa, Erreteria errealitate egokitzea. Horretarako, besteren artean, herriko euskaltzale desberdinengana jo genuen gogoan genuen ideari buruzko iritzia eman ziezaguten. Eta atsegin handiz jaso genituen iritzi haiek: oneritizkoa izan zen jasotako erantzun nagusia. Honek bultzada handiagoa eman zigun ekinbide hartan.

Gauzak honela, gure asmoak eta besteren aportazioak jasotzen zituen txostentxo prestatu genituen, bertan herriaren diagnostiko sozio-linguistikoa eman zelarik, laburki bazen ere. Azkenean, elkarte sortzeko asmoaren berri eman ondoren oneritzia adierazi zuen jendea, guztiak ez izan arren, eta sei lagunotako taldea, guztiok elkartu ginen Biltzarrean, martxoaren 29an Reina Aretoan. Bertan, hirugoeitamarren bat lagun euskararen elkarte izatea nahi den asmo honetaz hizketan ihardun ginen, trikitiaz eta zenbait bertsuz harrera egin gintuen ekitaldi batetan.

Biltzarre horretatik, elkartearen proiektuaren diseinua talde eragile baten esku jarri zen, eta datorren udazkenerako proiektu hori beste biltzarre batean aurkezteko "konpromezua" hartu zen. Talde eragile honetakook esan behar dugu, biltzarre hartara hurbildu zen edozein pertsona eta horretarako borondatea duen euskaldun oro gonbidatu ezezik, animatu ere egiten dugula proiektuaren lantze prozesuan parte hartzera (kontakturako telefona haxe da: 52.97.34).

Talde eragilearen eginkizunak lau taldetan banatuak ditugu:

1. lantaldea: Elkartearen egitura eta funtzionamendua, estatuak eta legeztapena.
2. lantaldea: hizkuntzaren alorra, alegia, datorren ikasturteari begira Erreterian euskararen erabilera (soziala) sustatzeko programa apal bat prestatzea.
3. lantaldea: kultura. Datorren ikasturterako programa bat egitea.
4. lantaldea: Elkartearen izenak proposatzea, eta lokala-egoitza eta finantziarioa aztertzea.

Beraz, lerro hauetatik euskaldun guztiok animatzen zaituztegu, euskararen inguruan elkartu eta gure hizkuntzaren -azken finean gure buruaren- aldeko lan polit eta atsegina egitera.